

**ANDRA MARI IKASTOLA IRAKASKUNTZARAKO SOZIETATE
KOOPERATIBOAREN ESTATUTUAK**

I. KAPITULUA.

**IZENA, XEDEA, SOZIETATEAREN HELBIDEA, IRAUPENA,
LURRALDE EREMUA.**

1. ARTIKULUA- IZENA.

Irakaskuntzarako sozietate kooperatiboa eratu da "ANDRA MARI IKASTOLA" SOZIETATE KOOPERATIBOA izenaz, Eusko Legebiltzarrak onetsitako Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen printzipioei eta xedapenei, eta indarrean dauden gainerako lege-aginduei eta Estatutu hauei loturik.

2. ARTIKULUA. - SOZIETATEAREN HELBIDEA.

Sozietatearen helbidea honakoa da: AMOREBIETA (Bizkaia), Larrea Auzoa z/g, eta Artezkaritza Kontseiluak erabaki dezake udalerrri berean helbide-aldaketa gauzatzea.

3. ARTIKULUA. - XEDEA.

1.- Maila, etapa, ziklo, gradu eta modalitate guztietako irakaskuntza-jarduerak garatzea du xede sozietate kooperatiboak, jakintzaren eta prestakuntzaren adarrak direnak direla. Eskolatik kanpoko jarduerak eta beroriei lotutako jarduerak ere burutu ahalko dira, bai eta eskola-zerbitzu osagarriak eta irakaskuntza-jarduerak eratortzen dituenak eman ere.

2.- Sozietateak era kooperatiboan ebatziko du bazkideen seme-alaben hezkuntza, ikastetxearen beraren bidez eta etorkizunean eratzen direnen bidez. Erabat bazterturik daude irabazizko asmoak eta debekatuta dago kooperatiba-itzulkin positiboak banatzea, oinarrizko printzipio honen arabera:

Ikasleen prestakuntza integrala, ikasgaien alorreko ezagutza emateaz gain, nortasuna garatzen eta pertsona aske eta arduratsuak izateko prestakuntza ere barneraturik.

4. ARTIKULUA. - IRAUPENA.

Denbora mugarik gabe eratu da sozietatea.

5. ARTIKULUA. – LURRALDE-EREMUA.

Bizkaiko Lurralde Historikoa da sozietate honen jarduketa-eremua.

II. KAPITULUA. BAZKIDEAK

6. ARTIKULUA. – NOR IZAN DAITEKE BAZKIDE.

1.- Bazkide erabiltzaileak.-

Sozietate honek ematen duen irakaskuntzarako adin egokian dauden seme-alabak edo tutoretzapekoak dituzten gurasoak, ordezkariak edo tutoreak eskubide osoko bazkide izango dira.

7. ARTIKULUA. – ONARTUA IZATEKO BETEKIZUNAK.

Pertsona batek, bazkide gisa onartua izateko, honako betekizun hauek bete beharko ditu:

a) 18 urtetik gorakoa izatea eta eskola-adineko semea/alaba edo adin txikikoa edukitzea bere ardurapean, berori izanik kooperatibak eskaintzen dituen zerbitzuen erabiltzailea.

b) Sozietatearen Kapitalari egin beharreko ekarpenekin lotuta dauden konpromisoak, estatutu hauen eduki osoa, barne-araudia eta kooperatibako organo eskumendunek era egokian hartzen dituzten erabakiak onartzea eta horiek guztiek eratortzen dituzten betebeharrak betetzea.

c) Kooperatibaren zerbitzuen hartzaile izango den eskola-adineko umearen jagoletza eta zaintza edukitzea.

d) Idatzizko onartze-eskaria egitea, Artezkaritza Kontseiluari zuzenduta.

8. ARTIKULUA. – BAZKIDEAREN INSKRIPZIOA.

Artezkaritza Kontseiluak bazkidea onartu eta 7. artikuluko betekizunak betetakoan, Bazkideen Erregistroan inskribatuko da eta dagokion titulua emango zaio, beharrezkoak diren diligentsiak eginda.

9. ARTIKULUA. – BAZKIDEAK ONARTZEKO ERABAKIAK.

Artezkaritza Kontseiluari dagokio bazkideak onartzeko erabakiak hartzea. Honako hauek oinarri izanik baino ezingo ditu onarpenak mugatu, bidezko zioa erabilita:

a) Kooperatibaren zerbitzu-gaitasuna.

b) Kapitulu honetan eskatzen diren betekizunak ez betetzea.

c) Legean eta Estatutu hauetan oinarri duen beste edozein zio.

10. ARTIKULUA. – ONARTZEKO PROZEDURA ETA ERREKURTSOAK.

1.- Idatziz egingo zaie onartzeko eskaria administratzaileei, eta eskaria jasotzen duten egunean zenbatzen hasita, gehienez hirurogei eguneko epean hartuko dute ebazpena.

Onartzearen aurkako erabakiek arrazoituak beharko dute izan. Epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, eskariaren egilea onartutzat joko da.

2.- Onartu ezean, eskatzaileak Batzar Orokorrari zuzendutako errekurtsua jar dezake, ezezko erabakia jakinarazten zaion egunean zenbatzen hasi eta 20 eguneko epean. Egiten den lehenengo Batzar Orokorrean emango da errekurtsuaren gaineko ebazpena, bozketa sekretuaren bidez. Hori baino lehen, entzunaldia eman beharko zaio interesdunari.

3.- Egiten den lehenengo Batzar Orokorrean aurkez daiteke onartze-erabakiaren aurkako errekurtsua, onartzeko erabakia jakinarazten den egunean zenbatzen hasi eta 20 eguneko epean bazkideen % 20k hala eskatuta.

Bazkide izaera bereganatu izana etenda egongo da onartzearen aurkako errekurtsua jartzeko epea igaro arte edo, errekurtsua jarrita egonez gero, Batzar Orokorrak ebazpena eman arte. Egiten duen lehenengo bilkuran hartu beharko du Batzar Orokorrak ebazpena, bozketa sekretuaren bidez eta hori baino lehen interesdunari entzunaldia eskainita.

4.- Onartzeko erabakia hartzen den egunean hasita izango dira eragingarri sozietatearekiko eskubideak eta betebeharrak.

11. ARTIKULUA. – BORONDATEZKO BAJA.

Uneoro eman dezakete baja Kooperatiban bazkideek, bi hilabeteko epean administratzaileei idatzizko aurre-abisua helarazita. Pertsona juridikoak direnean, lau hilabetekoa izango da epea.

12. ARTIKULUA. – NAHITAEZKO BAJA.

1.- Estatutu hauen edo legearen arabera, bazkide izateko exijitzen diren betekizunak jada betetzen ez dituzten bazkideei baja emango zaie nahitaez.

2.- Artezkaritza Kontseiluak erabakiko du nahitaezko baja, interesdunari ofizioz entzunaldia eman ondoren, beste edozein bazkidek edo eragindakoak berak eskatuta.

3.- Artezkaritza Kontseiluak bazkidearen eskubide eta betebeharrak guztiak berehala eten litzake, kautelaz, Batzar Orokorrean botoa emateko eskubidea izan ezik, erabakia betearazlea izan arte.

4.- Batzar Orokorraren berrespena jakinarazten denean edo Batzar Orokorrari errekurtsioa aurkezteko epea igarotakoan izango da betearazlea Artezkaritza Kontseiluaren erabakia.

5.- Borondatezko edo nahitaezko baja dela eta, Artezkaritza Kontseiluak hartu duen erabakiarekin bat ez datorren bazkideak hurrengo artikulua 2 eta 4 zenbakietan aurreikusita dagoen eran aurkez dezake errekurtsioa.

13. ARTIKULUA. - EGOZPENA.

1.- Artezkaritza Kontseiluak erabaki dezake bazkideen egozpena 18.1 artikuluan xedatutako faltak gertatuz gero, ondore horietarako hasiera emango zaion espedientearen bidez eta interesdunari entzunaldia eskainita.

2.- Bazkideak egozteko erabakiaren aurkako errekurtsioa jar dezake Batzar Orokorrean, erabakia jakinarazten zaionean zenbatzen hasi eta 30 eguneko epean.

Deitzen den lehenengo Batzar Orokorraren gai-zerrendako puntuetako bat izango da errekurtsioa, eta bozketa sekretuaren bidez hartuko da ebazpena, interesdunari entzunaldia eskaini ondoren.

3.- Aurreko artikulua 4. puntuan aurreikusita dagoen eran izango da betearazlea egozteko erabakia.

4.- Batzar Orokorrak berretsi ondoren, egozteko erabakia aurkaratu ahal izango da, jakinarazten denean zenbatzen hasi eta bi hilabeteko epean, 39. artikuluan aipatzen den prozesu-bidea erabilita.

14. ARTIKULUA. – BAZKIDEEN ESKUBIDEAK.

Honako hauek dira bazkideen eskubideak:

- a) Kooperatibaren organoetako karguak hautatzeko eta hautatuak izateko eskubidea.
- b) Proposamenak egiteko eta Batzar Orokorraren eta partaide direneko gainerako organoen erabakietan hitzarekin eta botoarekin parte hartzeko eskubidea.
- c) Kooperatibaren jardura guztietan diskriminaziorik gabe parte hartzeko eskubidea.
- d) Eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazioa jasotzeko eskubidea.
- e) Bidezkoa denean, Sozietatearen Kapitalari egindako ekarpenak eguneratu eta itzultzeko eskatzeko eskubidea.
- f) Legeek eta Estatutuek eratoritzen dituzten gainerako eskubideak.

15. ARTIKULUA. – INFORMAZIORAKO ESKUBIDEA.

1.- Bazkide orok izango ditu eskubide hauek:

- a) Kooperatibaren Sozietate Estatutuen eta, hala izatera, barne araubidearen araudiaren kopia eskatzeko eskubidea.
- b) Kooperatibaren Bazkideen Erregistrorako liburua eta Batzar Orokorraren akten liburua aztertzeko eskubidea. Eskatuz gero, administratzaileek Batzar Orokorraren aktaren eta hartutako erabakien kopia egiaztatua eta bazkideen

erregistrorako liburuan egindako inskripzioen egiaztageria eman beharko dizkiote, arrazoitutako eskaria egin ondoren.

c) Administratzaileen erabakien kopia egiaztatua eskatzeko eskubidea, berari banaka eragiten diotenean.

d) Eskatu eta, gehien jota, hilabeteko epearen barruan, administratzaileen eskutik, Kooperatiba dela eta, duen egoera ekonomikoari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.

2.- Bazkide guztiek eskatu ahalko dizkiete administratzaileei idatziz Kooperatibaren funtzionamenduaren edota emaitzen alderdi guztiei buruz beharrezko irizten dieten azalpenak eta txostenak. Idatzia aurkeztu ondoren hamabost egun iraganda egiten den lehenengo Batzar Orokorrean emango zaizkie.

3.- Gai ordenari jarraiki, Batzar Orokorrean ekitaldiko diru-kontuei edo edozein proposamen ekonomikori buruz eztabaidatu beharra dagoenean, urteko diru-kontuak islatzen dituzten dokumentuak, emaitzen erabilerarako proposamena eta, halakorik izatera, Zaintza Batzordeak egindako kudeaketa-txostenak edota diru-kontuen kanpoko auditoriak bazkideen esku egon beharko dute Kooperatibaren egoitzan, deialdiaren epearen barruan aztertu ahal ditzaten.

Epe horren barruan, eta Batzarra egin baino gutxienez bost egun lehenago, ekonomia-agiriei dagozkien azalpenak eta argibideak eskatu ahalko dituzte bazkideek idatziz, Batzarra egiten denean bertan erantzun diezaieten.

4.- Aurreko atalean ezarri den eskubideari kalterik eragin gabe, gutxienez sozietatearen botoen ehuneko hamar osatzen duten bazkideek beharrezkoa irizten dioten informazioa eska dezakete idatziz uneoro. Eskatzen duten informazioa idatziz eman beharko diete administratzaileek, 30 egunetik gorakoa izango ez den epean.

5.- Nolanahi ere, administratzaileek Kooperatibaren sozietate-eta ekonomia-alorretan gertatzen diren aldagarri nagusien gaineko informazioa eman beharko diete bazkideei edo

bazkideak ordezkatzeko dituzten organoei, hiru hilerik behin eta egoki deritzoten bidea erabilita.

6.- Hain zuzen ere, Zaintza Batzordea berehala informatu beharko da, bai eta egiten den lehenengo Batzarra ere, kooperatibak burutzen dituen kudeaketa eta prozedura guztiez, baldin eta entitatea desegitearekin, kooperatibak hezkuntza-jarduera burutzeari uztearekin, eta hezkuntza-titulartasuna eta kooperatibaren ondarea erakunde publikoei edo pribatuei lagatzearekin lotuta badaude.

16. ARTIKULUA. – INFORMAZIORAKO ESKUBIDEAREN MUGAK ETA BERMEAK.

Eskaria ausartegia edo oztopatzailea denean, edota Kooperatibaren legezko interesak arrisku larrian jartzen ditunean baino ezingo dute administratzaileek informazioa ukatu, eta era arrazoituan egin beharko dute. Salbuespen hori, halatan ere, ez da bidezkoa izango ukatutako informazioa Batzar Orokorrean eman behar denean, informaziorako eskaria bertaratutako eta ordezkaturako bazkideen erdiek baino gehiagok eskatua bada eta, gainerako balizkoetan, Baliabideen Batzordeak edo, bere faltan, Batzar Orokorrak hala erabakitzen duenean informazioa eskatzen duten bazkideek jarritako errekurtsoren ondorioz.

Nolanahi ere, bazkide eskatzaileek administratzaileen ezezkoa aurkara dezakete, Estatutu hauen 47. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.

17. ARTIKULUA. – BAZKIDEEN BETEBEHARRAK.

a) Batzar Orokorraren eta deitzen zaieneko gainerako organoen bileretara joatea.

b) Karguak betetzeko aukeratzen dituztenean, izendapenak onartzea, hala ez egiteko zergati bidezkoa dagoenean izan ezik.

c) Kooperatibaren xede diren jardueretan parte hartzea. Ondore horietarako, honakoak hartuko dira partaidetzarako gutxienerako arauak:

1.- Mantentze eta garbiketa lanetan parte hartzea administratzaileek eskatzen dietenean.

2.- Fondoak lortzeko kanpainen (tabernak, Ibilaldiak, etab.) eta eskola-jaien prestaketan eta antolaketan parte hartzea.

d) Kooperatibaren jardueri eta datuei lotuta dauden kontuak isilpean mantentzea, baldin eta kontuok zabaltea sozietatearen interesentzat kaltegarria bada.

e) Lehiatasun-jarduerarik ez burutzea Kooperatibak garatzen duen sozietate-xedearekin, eta horretan dihardutenekin ez kolaboratzea, administratzaileek berariaz baimentzen dutenean salbu.

f) Sozietatearen Kapitalerako ekarpenak egitea aurreikusita dauden baldintzetan.

g) Galeren egozpena bereganatzea Batzar Orokorrak erabakitzen den zenbatekoan.

18. ARTIKULUA. – BAZKIDEEN FALTAK.

Bazkideek egiten dituzten faltak honela sailkatzen dira, garrantziaren, transzendentziaren eta asmo txarraren arabera:

- oso larriak
- larriak eta
- arinak.

1.- Honakoak dira oso falta larriak:

a) Lehia-eragiketak, iruzurra kapital-ekarpenetan, funtsezko datuak ezkutatzea, administratzaileei eta entitatearen

ordezkariei modu nabarian zuzenduta dagoen begirunerik eza, Kooperatibaren interes materialen edota sozietate-ospearen aurka doazenean.

b) Dokumentuak, izenpeak, zigiluak, markak edota pareko datuak faltsifikatzea, Kooperatibak bazkideekin edota hirugarrenekin dituen harremanetarako garrantzizkoak direnean.

c) Entitatearen sekretuak urratzea, beraren interesei kalte larria eragiten zaienean.

d) Artezkaritza Kontseiluaren, Zaintza Batzordearen edota beraietako kideetako edozeinen eginkizunak usurpatzea.

e) Bazkide izateaz baliatzea espekulazio-jarduerak edota Legearen aurka doazenak garatzeko.

f) Estatutuen 17. artikuluan adierazita dauden betebeharrak era larrian edo behin eta berriro ez-betetzea.

g) Tratu txarrak, hitzez nahiz egitez, beste bazkideei edo Kooperatibako langileei, halakorik izatera, sozietatearen organoak batzartzen direnean, edota sozietatearen xederako beharrezkoak diren lan, jarduera eta eragiketak burutzean.

h) Urtebetetik beherako epearen barruan falta larrietan berrerortzea.

i) Hileroko kuotak ez ordaintzea.

2.- Honakoak dira falta larriak:

a) Deialdia behar den moduan eginda, justifikaziorik gabe Batzar Orokorretara ez joatea, baldin eta sozietatearen organo horren bileretara ez joateagatik azken hiru urteetan bazkidea birritan falta arinez zehatua izan bada.

b) Sozietatearen karguren baterako hautatua izan eta karguan era arduratsuan ez jardutea.

c) Urtebetetik beherako epearen barruan falta arinetan berrerortzea.

3.- Honakoak dira falta arinak:

a) Deialdia behar den moduan eginda, Batzar Orokorretara ez joatea justifikaziorik gabe.

b) Kooperatibaren idazkariari helbide-aldaketaren berri ez ematea, gertaera jazo eta bi hilabeteko epean.

c) Estatutuei dagokienez lehenengoz egiten diren urraketak, oso falta larrien eta falta larrien ataletan aurreikusita ez badaude.

19. ARTIKULUA. – ZEHAPEN-PROZEDURAK.

1.- Prozedura.

Sozietatearekin lotutako faltak egiten dituzten bazkideak zehatzeko hasiera emango zaio espedienteari, honako arauak aintzat hartuta:

OSO FALTA LARRIAK DIRENEAN, Artezkaritza Kontseiluak bere kideen artean izendatzen duen Kide Txostengileak formulatuko du Karguen Agiria, eta berak jakinaraziko dio idatziz bazkide erruztatuari faltaren behin behineko kalifikazioa zein den eta zer zehapen proposatzen duen. Bazkideak deskargu-idatzia egin dezake eta Artezkaritza Kontseiluan aurkeztu egutegiko hamar egunen epean. Artezkaritza Kontseiluak, jarduketa ikusita, proposatu diren kalifikazioa eta zehapena berretsi edo aldatuko du. Epai horren aurkako errekurtsioa jarri ahalko du bazkide erruztatuak, zehapena Batzar Orokorrean jakinarazi eta egutegiko 30 egunen epean.

b) FALTA LARRIAK ETA ARINAK DIRENEAN, Artezkaritza Kontseiluak bere kideen artean izendatzen duen Kide Txostengileak formulatuko du Karguen Agiria, eta berak jakinaraziko dio idatziz bazkide erruztatuari faltaren behin behineko kalifikazioa zein den eta zer zehapen proposatzen duen. Bazkideak deskargu-idatzia egin dezake eta Artezkaritza Kontseiluan aurkeztu egutegiko hamar egunen epean. Artezkaritza Kontseiluak, jarduketa ikusita, behin betiko kalifikazioa eta zehapena ezarriko ditu. Falta larriak direnean, errekurtsioa jarri ahalko du bazkide erruztatuak, zehapena Batzar Orokorrean jakinarazi eta egutegiko 30 egunen epean. Falta arinak direnean, berriz, ez da errekurtsio onartuko.

2.- Epe Orokorrak.

Segurtasun juridikoarekin lotutako arrazoiak direla eta, diziplina espedienteen faseetako bakoitzerako epeak, 13. Artikuluan araututa dauden egoztekoak izan ezik, hauexek izango dira:

a) Espedienteari hasiera emateko epea.

Sozietatearekiko falten zioz espedienteari hasiera emateko epeak:

1.- Hilabetekoa falta arintzat hartzen diren kasuetan.

2.- Bi hilabetekoa falta larritzat hartzen diren kasuetan, eta

3.- Hiru hilabetekoa oso falta larritzat hartzen diren kasuetan.

Epe horiek falten preskripzio-epeak dira. Administratzaileek araua hautsi dela jakiten duten egunean hasiko da zenbatzen preskripzio-epea eta, nolana ere den, egin eta hamabi hilabete geroago. Zehapen prozedurari hasiera ematearekin batera etengo da epea eta berriro hasiko da zenbatzen, lau hilabeteko epean ez bada ebazpena ez ematen, ez jakinarazten.

b) Errekurtsioetarako epeak.

Egutegiko 30 eguneko epea dago errekurtsioak aurkezteko, zehapenen berri ematen den egunean zenbatzen hasita.

c) Errekurtsioei erantzuteko epea.

Goiko atalean aipatzen diren errekurtsioei erantzuteko epea egutegiko 45 eguneko izango da, errekurtsioa aurkezten den egunean zenbatzen hasita.

Epe horiek aintzat hartu ezik, automatikoki iraungiko da dagokion ekintza burutzeko eskubidea.

3.- Zehapena betearaztea.

Zehapenak irmo diren egunaren biharamunean hasita izango dira betearazle zehapen guztiak. Errekurtsorik jarri gabe, errekurtsorearen epea iraungitzeko egunaren hurrengo eguna edo apelaezina den epaia ematen den egunaren hurrengo eguna hartuko dira biharamuntzat.

4.- Zehapenak bertan behera uztea.

Egozpenen balizkoa alde batera utzita, Artezkaritza Kontseiluak, interesdunek eskatuta, ezarritako zehapenetan betetzeko dauden zatiak eta iragandako zehapenen ohartarazpenak bertan behera utz ditzake, kontseiluaren iritziz birgaitu diren bazkideak diren kasuetan.

20. ARTIKULUA. – SOZIETATEAREKIKO FALTEN ZIOZKO ZEHAPENAK.

1.- Falta arinak direnean:

Idatzizko kargu-hartzea.

Botoa emateko eskubidea etetea, urtebetera arteko epean.

2.- Falta larriak direnean:

Lehenengo ataleko guztiak.

Idatzizko ohartarazpena. Administratzaileek hala erabakiz gero, jendeari horren berri eman dakiok.

Botoa emateko eskubidea etetea, bi urtebetera arteko epean.

Administratzaile edo kooperatibaren edozein sozietate organoren kide hautatua izateko gaitasunik gabe uztea.

3.- Oso falta larriak direnean:

1. eta 2. ataletako guztiak.

Sozietatearekiko eskubide batzuk edo guztiak etetea hiru urtebetera bitarteko epean.

Egoztea.

III. KAPITULUA.

KOOPERATIBAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

21. ARTIKULUA. – SOZIEATEAREN KAPITALA.

1.- Euskadiko Kooperatibei buruzko 4/1993 Legearen 57.1.b) artikuluan ezarrita dauden ekarpenek osatuko dute Sozietatearen Kapitala, bai eta, Lege horrekin bat etorrita, Sozietatearen Kapitaltzat jotzen diren gainerako ekarpenek ere.

2.- Kooperatibaren presidenteak eta idazkariak izenpetzen dituzten eta inola ere balore titulutzat joko ez diren titulu izendunen bidez egiaztatuko dira. Libreta edo kartila izendunen bidez ere egiaztatu ahalko da partaidetza. Sozietatearen gutxieneko kapitala hirurogei mila eurokoa (60.000 €) izango da.

3.- Legezko dirutan egingo dira ekarpenak, baina ondasunak edo eskubideak ere izan daitezke. Azken kasu horietan, euren balioa zehaztuko dute administratzaileek, aditu batek edo batzuek txostena egin ondoren. Balioespen hori Batzar Orokorrak onartu beharko du.

22. ARTIKULUA. – DERRIGORREZKO EKARPENAK.

1.- Sozietatearen Kapitalari egin beharreko gutxieneko ekarpena ehun eta berrogeita hamar eurokoa da (150,00 €), bazkideko.

2.- Ezinbestean egin beharreko gutxieneko ekarpen osoa onartuak izatean izenpetu eta ordainduko dute bazkideek, indarrean dagoen sarrera-kuotarekin batera.

3.- Batzar Orokorrak urtero zehaztuko du zein diren hasierako ezinbesteko ekarpena eta bazkide berrientzako sarrera-kuota.

23. ARTIKULUA. – BORONDATEZKO EKARPENAK.

Sozietatearen Kapitalari borondatezko ekarpenak egitea erabaki dezake Batzar Orokorrak, eta ekarpenotarako baldintzak ezarriko ditu.

24. ARTIKULUA. – SARRERA KUOTAK.

Bazkideek Kooperatiban sartzean jarri beharreko kuota ezarri ahalko du Batzar Orokorrak. Nolanahi ere, klase bereko bazkide guztiei eragingo diete dauden sarrera-kuotek.

Sarrera-kuotak ezingo dira izan indarrean dagoen ezinbesteko gutxieneko ekarpenaren % 25 baino handiagoak.

25. ARTIKULUA. – INTERESAK ETA EKARPENEN EGUNERATZEA.

1.- Bazkideek kapitalari egiten dizkieten ekarpenek ez dute interesik sorraraziko.

2.- Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 61. artikulua arabera eguneratuko dira ekarpenak.

26. ARTIKULUA. – EKARPENAK ITZULTZEA.

Baja izanez gero edo kooperatiba desegitera, ekarpenak itzul dakizkien eska dezakete bazkideek. Artezkaritza kontseiluak uko egin diezaieke itzulketa-eskariei, baldintzarik izan gabe.

27. ARTIKULUA. – EKARPENAK ESKUALDATZEA.

Honela eskualda daitezke ekarpenak:

a) "Inter vivos" ekintzen bidez, bazkideen artean, Artezkaritza Kontseiluak izaera orokorrez finkatzen dituen baldintzen

arabera. Eskualdaketa gauzatu eta 15 eguneko epean kontu eman beharko zaió kontseilu horri.

Ez da ekarpenen eskualdaketarik onartuko baldin eta bazkide berrien hasierako ekarpen gisa erabiltzeko xedea badute.

b) "Mortis causa" ondorengotza.

Bazkide bihurtu ahalko dira eskubidedunak bazkide izateko beharrezkoak diren betekizunak betetzen badituzte eta kausatzailea hil ondorengo hiru hilabeteen barruan hala eskatzen badute. Bestela, sozietateari egindako ekarpenari dagokion kredituaren likidaziorako eskubidea izango dute, kenkaririk gabe, kausatzailea hiltzen denean zenbatzen hasi eta gehien jota urtebetekoa izango den epean.

28. ARTIKULUA. – SOBERAKIN GARBIAK ZEHAZTEA.

Soberakin garbia zein den zehazteko, ekitaldi ekonomiko bakoitzean kendu behar diren gastuen artean, honakoak izango dira: Legeria komunak baimendutako gastuak, bidezkoak diren amortizazio-partidak eta Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 66. artikulua aipatzen dituen gainerako partidak.

29. ARTIKULUA. – SOBERAKINAK BANATZEA.

1.- Aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko eta exigigarriak diren zergak ordaintzeko kopuruak kenduta gertatzen diren soberakin garbiak izango dira soberakin erabilgarriak.

2.- Urtero, honetarako izango dira soberakin erabilgarriak:

a) a) Nahitaezko Erreserba Fondorako, % 20 eta Hezkuntza eta Kooperatibaren Promozio Fondorako, % 10.

b) Gainerakoa Batzar Orokorraren esku egongo da. Borondatezko erreserba-fondoak zuzkitzeko edo indarrean dagoen legerian aurreikusita dauden bestelako xedeetarako

bana dezake. Eraitza positiboak ezingo dira, inola ere, bazkideen artean banatu.

3.- Nahitaezko Erreserba Fondoa Sozietatearen Kapitalaren zenbatekoaren % 50era iristen ez den artean, erdira murriz daiteke Hezkuntza eta Kooperatibaren Promozio fondoaren aldeko gutxieneko zuzkidura.

30. ARTIKULUA. – GALERAK EGOZTEA.

1.- Kontu berezi batera egotziko dira galerak, etorkizuneko eraitza positiboan kontura amortizatzeko, gehienez bost urteko epean.

2.- Galeren konpentsazioari dagokionez, honako arau hauei eutsi beharko die kooperatibak:

a) Galera guztiak egotz dakizkieke borondatezko erreserba-fondoei, horrelakorik izanez gero.

b) Nahitaezko Erreserba Fondoari, gehien jota, lege ezinbestekoak diren fondoetarako soberakin positiboan azken bost urteetan edo, urte horiek baino lehenagokoa bada, eraketaz geroztik erabilitakoen batez besteko portzentajea egotzi ahalko zaio.

c) Nahitaezko fondoez eta borondatezko konpentsatzen ez den zenbatekoa bazkideei egotziko zaie beraietako bakoitzak kooperatibarekin gauzatutako eragiketeko, zerbitzuekiko edo ekintzekiko proportzioan. Bazkide bakoitzari egotzen zaizkion galerak honela ordainduko dira:

Zuzenean edo sozietatearen kapitalari egindako ekarpenetan edo, halakorik izatera, bazkideak kooperatiban egin duen eta egozketarako bidea ematen duen edozein finantza inbertsioan kenkariak eginez, gertatzen deneko ekitaldiaren hurrengoaren barruan.

31- ARTIKULUA - BAZKIDE LANGILEEN ORDAINSARIA.

Langile bazkideen eta inoren konturako langileen ordainsaria ezingo da izan jardueraren eta lanbide-kategoriaren arabera, sektoreko soldatapeko langileei ezarri beharreko Hitzarmen Kolektiboak zehazten duenaren ehuneko ehun eta berrogeita hamar baino handiagoa.

IV. KAPITULUA.

.- IV. KAPITULUA.- KOOPERATIBAREN ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETA.

32. ARTIKULUA. – SOZIJETATEAREN ORGANOAK.

Honakoak dira Kooperatibaren organoak:

- a) Batzar Orokorra.
- b) Artezkaritza Kontseilua.
- c) Zaintza Batzordea.

1. ATALA

BATZAR OROKORRA

33. ARTIKULUA. – BATZAR OROKORRA. KONTZEPTUA ETA ESKUMENAK.

1.- Haien eskumeneoak diren gaiez eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko bazkideek osatzen duten bilera da Batzar Orokorra.

2.- Bazkide guztientzat dira bete beharrekoak Batzar Orokorrean hartzen diren erabakiak.

3.- Batzar Orokorrari eta ez beste inori dagokio honako erabaki hauek hartzea:

a) Artezkaritza Kontseiluaren kideak, Zaintza Batzordearen kideak eta likidatzaileak bozketa sekretuaren bidez izendatu eta ezeztatzea, eta horien aurkako erantzukizun-ekintzak erabiltzea.

b) Kontu-auditoreak izendatzea eta ezeztatzea, baldin eta horretarako arrazoi zuzena badago.

c) Sozietatearen kudeaketaren azterketa egitea, eta sozietatearen diru-kontuak eta soberakinen banaketa edo galeren egozketa onartzea.

d) Nahitaezko ekarpenak, kapitalari egiten zaizkion ekarpenek sortzen duten interesa eta sarrera-kuotak edota aldizkakoak ezartzea.

e) Partaidetza-tituluen obligazioak edo partaidetza bereziak jaulkitzea.

f) Sozietatearen estatutuak aldatzea.

g) Bigarren mailako kooperatibak, korporazio kooperatiboak eta pareko entitateak eratzea, bai eta horiei atxiki eta horietatik banatzea ere.

h) Sozietatearen fusioa, zatiketa, transformazioa eta desegitea.

i) Estatutuen arabera Kooperatibaren ekonomia-, antolaketa-edota funtzio-egituran funtsezko aldaketa dakarten erabaki guztiak.

j) Kooperatibaren Barne Araudia onartu eta aldatzea.

k) Legeak hala ezarrita dauzkan gainerako erabaki guztiak.

4.- Kooperatibarentzat interesgarri diren bestelako gai guztiez ere eztabaida daiteke Batzarrean, baina Legeak sozietatearen beste organo baten eskumenez jotzen ez dituen gaietan baino ezingo ditu bete beharreko erabakiak hartu.

34. ARTIKULUA. – BATZAR OROKORREN MOTAK.

Batzar Orokorrak ohikoak eta ez-ohikoak izan daitezke. Sozietatearen kudeaketa aztertzea, hala badagokio urteko diru-kontuak onestea eta, beharrezkoa denean, soberakinen banaketari edo galeren egozketari buruzko ebazpena hartzea dira ohiko Batzar Orokorren xede nagusia. Batzarraren eskumenekoak diren bestelako gaiak ere sar daitezke Gai Zerrendan. Gainerako Batzarrak ez-ohikoak izango dira.

35. ARTIKULUA. - DEIALDIA.

1.- Artezkaritza Kontseiluak egingo ditu Batzar Orokorretarako deialdiak.

2.- Sozietatearen ekitaldia ixten den egunean zenbatzen hasi eta lehenengo sei hilabeteen barruan egingo da ohiko Batzar Orokorrerako deialdia. Epe hori deialdia egin gabe igaroz gero, edozein bazkidek eskatu ahalko die administratzaileei deialdia egiteko. Administratzaileek 15 eguneko epean deitu ezean, Sozietatearen helbideari dagokion Lehen Auzialdiko epaileari eskatu ahalko dio bazkideak Batzarrerako deialdia egin dezala eta buru nor izango den izenda dezala.

3.- Edozein unetan batzartuko da ez-ohiko Batzar Orokorra, administratzaileen beren ekimenaz, Zaintza Batzordearen eskariz edo gutxienez boto guztien ehuneko hogeitaz biltzen duten bazkideek hala eskatuta, eztabaidatuko diren gaiak eta proposamenak dakartzan gai-zerrenda daukan errekerimendu sinesgarria eginez administratzaileei. Eskaria jasotzen den egunean zenbatzen hasi eta hogeita hamar eguneko epean Batzar Orokorrerako deialdiak egin gabe iraunez gero, deialdi judiziala eskatu ahalko da, aurreko zenbakian aurreikusita dagoenaren arabera.

4.- Boto guztien % 10 baino gehiago ordezkatzeko duten bazkideek gai ordenan gai bat edo gehiago sartzeko eskatu ahalko dute deialdia iragartzen den egunean zenbatzen hasi eta bost eguneko epean, administratzaileei zuzenduta egongo den idatziaren bidez. Administratzaileek puntu horiek erantsiko dizkiote gai-zerrendari eta gai-zerrenda berria argitaratu, legez exijiturik dagoen publizitatea gutxienez emanda, eta Batzarra egin baino gutxienez lau egun lehenago. Batzarraren data ezingo da, inola ere, atzeratu.

5.- Sozietatearen helbidean eta, halakorik izatera, kooperatibak jarduera garatzen dueneko zentro guztietan jendaurrean modu nabarmenean jarriko den iragarkiarenean bidez deituko da, beti ere Batzar Orokorra. Kooperatibak bostehun bazkide baino gehiago badauzka, sozietatearen helbideari dagokion lurralde historikoan zabalkuntzarik handiena duten egunkarietan ere argitaratuko da deialdia.

6.- Batzarra egin baino gutxienez hamar egun lehenago eta gehienez hirurogei egun lehenago plazaratuko da deialdia.

7.- Bileraren eguna, ordua eta lekua adieraziko dira gutxienez deialdian, lehenengo eta bigarren deialdiei dagokienez, eta bi deialdien artean ordu erdi egongo da gutxienez. Argi, zehatz eta behar adina xehetasunez adieraziko da bertan zein diren gai-ordena osatzen duten gaiak.

8.- Artikulu honen aurreko zenbakietan xedatutakoa gorabehera, baliozkoa izango da batzarra deialdirik egin gabe, baldin eta bazkide guztiak bertan edo ordezkaturik daudelarik,

aho batez Batzar Orokor unibertsala egitea erabakitzen badute, eta gai-zerrenda eta bertaratuen zerrenda denek onartu eta sinatzen badute. Horrelakoetan, ondoren bazkide guztiek ez daukate zertan bertan geratu.

36. ARTIKULUA. – BATZAR OROKORRAREN FUNTZIONAMENDUA.

1.- Izaera unibertsala duenean izan ezik, sozietatearen helbidea dagoen herrian egingo da edo, zergati arrazoitua egonez gero, administratzaileek aukeratzen duten beste edozein tokitan.

2.- Batzar Orokorra lehenengo deialdian era baliozkoan eratua izateko, botoen gehiengoak egon behar du bertaraturik edo ordezkaturik. Bigarren deialdian, berriz, gutxienez botoen % 10 daukaten bazkideak edo 100 boto izango dira beharrezko. Nahikoa da quoruma bileraren hasieran izatea.

3.- Bazkideak, beste bazkide batzuek ordezkatuak izan daitezke. Horretarako, idatzizko baimena emango diete Batzar bakoitzerako. Batzarra unibertsala denean, aurreikusita dagoen gai-zerrenda agertuko da ordezkapena ziurtatzeko idatzian.

Bazkideek, bereaz gain, bina ordezkaritza bereganatu ahalko dituzte gehien jota. Ordezkaritza atzera bota daiteke. Ordezkaturia Batzar Orokorrera bertaratuz gero, atzera botata geratuko da ordezkaritza.

4.- Artezkaritza Kontseiluaren presidentea izango da Batzar Orokorraren buru eta, bera bertan izan ezean, Batzarrak exijitzen duen bazkidea. Idazkaria izango du laguntzaile presidentea. Artezkaritza Kontseiluaren idazkariak jardungo du egiteko horretan edo, bestela, Batzarrean dauden bazkideek izendatzen duten pertsonak.

Presidenteak eztabaidak zuzenduko ditu, Batzarraren ordenari eutsiko dio eta legezko arauak betetzen direla zainduko du.

5.- Bozketa sekretua izango da Legean eta Estatutuetan aurreikusita dauden balizkoetan eta, nolana ere den, bertaratutako eta ordezkaturako bazkideen %10ek hala eskatzen dutenean ere bai.

6.- Baliogabeak izango dira gai-zerrendara bilduta ez dauden gaien gaineko erabakiak, Legeak berariaz erabakiok hartzeko baimena ematen duenean izan ezik.

37. ARTIKULUA. – BOTOA EMATEKO ESKUBIDEA.

1.- Bazkide bakoitzak boto bat edukiko du.

2.- Bazkide kolaboratzaileen boto kopurua, guztira, ez da Kooperatibaren guztirako botoen erdira iritsiko.

3.- Bazkideak ez du botorik emango, interesen gatazka dagoelako, ondoko balizko hauetan:

a) Hartu beharreko erabakiak era zuzenean eta eskusiboan eragiten dionean.

b) Erantzukizuneko ekintza baten subjektu pasiboa denean.

38. ARTIKULUA. – GEHIENGOEN ARAUBIDEA.

1.- Baliozko eran ematen diren botoen erdia baino gehiago beharko dira Batzar Orokorraren erabakiak hartzeko. Ondore horietarako, ez dira, ez boto zuriak, ez abstentzioak, zenbatuko. Legeak edo Estatutu hauek gehiengo indartua ezartzen duten balizkoak salbuetsita geratuko dira.

2.- Bertan edo ordezkaturik dauden botoen bi hereneko gehiengoa beharko da Kooperatibaren transformazioa, fusioa, zatiketa edo desegitea erabakitzeko, baldin eta bertan eta

ordezkaturik dauden botoen kopurua kooperatibaren guztirako botoen % 75 baino txikiagoa bada.

39. ARTIKULUA. – BATZAR OROKORRAREN AKTA.

1.- Aktara bilduko dira Batzar Orokorrak hartzen dituen erabakiak. Idazkariak egingo du akta, eta akta liburuan transkribatuko da, honako zehaztasunak adierazirik:

a) Bileraren eguna eta tokia.

b) Deialdia egiteko erabilitako data eta modua, Batzar Unibertsala denean izan ezik.

c) Deialdiaren testu osoa.

d) Batzarreratutako bazkideen kopurua, adierazirik zenbat izan diren bertaratutakoak eta zenbat ordezkatuak, eta Batzarra lehenengo ala bigarren deialdian egin den.

e) Bertan eztabaidatu diren gaien eta aktan jasoarazteko eskatutako esku hartzeen laburpena.

f) Hartutako erabakien edukia.

g) Bozketen emaitza, erabakietako bakoitza hartzeko erabilitako gehiengoak adierazirik. Kontrako botoa eman dutenek hala eskatuz gero, erabakien aurkako oposizio hori jasoko da aktan.

h) Aktaren onespena, bilera amaituta, hala egiten denean.

2.- Bertaratutakoen zerrenda aktaren hasieran agertuko da edo, bestela, atxiki egingo zaio, idazkariak presidentearen oniritziarekin izenpetuko duen eranskinean. Fitxategi baten bidez ere eratu ahalko da bertaratutakoen zerrenda edota euskarri informatikoari gehitu, izaera honetako sozietateentzat Merkataritza Erregistroaren Arautegian ezarrita dauden betekizunak beterik.

3.- Batzarrak berak onartu ahalko du akta, Batzarra amaitu eta segituan edo, horrela ez bada, 15 eguneko epearen barruan. Presidenteak eta Batzarrak izendatzen dituen bi bazkidek onartu beharko dute, idazkariarekin batera akta sinaturik.

4.- Batzarrera doazen guztiek izango dute aktaren testu osoaren edota hartzen diren erabakien egiaztagiriak eskatzeko eskubidea. Egiaztagiriak egiten direnean idazkari denak sinatuko ditu agiriok, presidenteak onirizpena emanda.

5.- Erabakiek, hartzen diren momentuan hasiko dira berekin dakartzaten ondorioak sortzen.

6.- Inskribagarriak diren erabakiak Kooperatiben Erregistroa aurkeztu beharko dira akta onartzen den egunaren ondorengo hogeita hamar eguneko epearen barruan.

40. ARTIKULUA. – BATZAR OROKORRAREN ERABAKIAK AURKARATZEA.

1.- Legearen aurkakoak diren, Estatutuen kontra doazen edota bazkide baten batzuen edo hirugarrenen onurarako, Kooperatibaren interesak kaltetzen dituzten Batzar Orokorraren erabakiak aurkaratu ahalko dira.

2.- Legearen aurkako erabakiak baliogabeak izango dira. Aurreko puntuak aipatzen dituen gainerako erabakiak deuseztagarriak izango dira.

3.- Ez da bidezkoa izango ondorerik gabe utzi den edo era baliozkoan beste batek ordezkatu duen erabakia aurkaratzea. Aurkaratzearen zioa desagerrarazi ahal izanez gero, epaileak arrazoizko epea emango du zio hori zuzentzeko.

4.- Erabaki baliogabeak aurkaratzeko ekintza bazkide guztiek, administratzaileek, Zaintza Batzordearen kideek eta legezko interesa duten hirugarrenek burutu ahalko dute, eta urtebeteko epean iraungiko da, zergatiaren edo edukiaren kariz, ordena publikoaren aurkakoak diren erabakiak izan ezik.

5.- Erabaki deuseztagarriak aurkaratzeko ekintza bertaratutako bazkideek erabili ahalko dute, Batzar Orokorraren aktan desadostasuna jasoarazteko eskatu dutenean, bertaratu ez direnek eta legez kanpo botoa emateko eskubidea kendu zaienek, eta administratzaileek eta Zaintza Batzordearen kideek, eta berrogei eguneko epean iraungiko da.

6.- Artikulu honetan aurreikusita dauden iraungitze-epaiek erabakia hartzen den egunean hasiko dira zenbatzen. Inskribagarriak direnean, berriz, Kooperatiben Erregistroan inskribatzen diren egunean hasiko dira zenbatzen.

7.- Sozietate Anonimoen Araubide Juridikoari buruzko Legearen 118. eta 121. artikuluen bitartekoetan ezarrita dauden araei egokituko zaizkie aurkaratze-ekintzak. Hala ere, eskari-idatzian aurkaratutako erabakia eteteko eskatzeko, Zaintza Batzordeak izan beharko du demandatzailea edo, bestela, gutxienez botoen kopuruaren % 20 ordezkatzeko duten bazkideek.

8.- Aurkaratze ekintza onesten duen epaiak bazkide guztiengan izango ditu ondoreak baina ez die eragingo, ordea, aurkaratutako erabakiaren ondorioz hirugarrenek fede onez eskuratutako eskubideei. Aurkaratutako erabakia Kooperatiben Erregistroan inskribaturik egonez gero, indargabetzea ekarriko du epaiak.

2. ATALA

ARTEZKARITZA KONTSEILUA

41. ARTIKULUA. – ARTEZKARITZA KONTSEILUA. IZAERA ETA ESKUMENAK.

Kooperatibaren gobernu, kudeaketa eta ordezkaritza organoa da Artezkaritza Kontseilua, eta horri dagozkion

ahalmen guztiak erabiliko ditu, Legeak edo Sozietatearen Estatutu hauek Batzar Orokorrarentzat edo sozietatearen beste organo batzuentzat berariaz gordetzen dituenak izan ezik.

Honako ahalmen bereziak dagozkio Artekarrizta Kontseiluari:

a) Bazkideak onartzeari eta kentzeari dagozkion erabakiak hartzea, Estatutu hauetan xedatuta dagoenari eutsirik.

b) Kooperatibaren ordezkari erantzulea izatea mota guztietako egintza eta kontratuetan.

c) Zuzendari nagusia eta, halakorik izatera, sailtako zuzendariak eta administratzaileak izendatzea eta kargutik kentzea, euren eskumenak, betebeharrak eta ordainketak zehazturik.

d) Kooperatibaren martxa antolatu, zuzendu eta ikuskatzea eta, beharrezkoa denean, Batzar Orokorrari Kooperatibaren Barne Araudia proposatzea.

e) Sozietatearen xedea gauzatzeko beharrezkoak eta komenigarriak diren egintzak burutzea eta kontratuak egitea, honakoak ere barne direla: ondasun higiezinak eskuratzeko edo besterentzeko direnak, eskubide errealen eraketa, baita Hipotekena ere eta, modu berezian, errentamenduarena, eta Estatutu hauen arabera, Kooperatibari baimentzen zaizkion mota guztietako negozioen eta eragiketen gaineko ebazpenak hartzea.

f) Kooperatibari ondo datozkion kreditu edo mailegu eragiketak erabakitzea, Batzar Orokorrari ez dagozkionean.

g) Abalak ematea erakunde publiko eta pribatuetan, eta Zor Publikoaren eta Balore higigarrien eta higiezinaren mota guztietako tituluak erostea, saltzea, izenpetzea eta gordailutzea, zuzenbidearen arabera onartuta daudenean, eta egoki irizten dion erako afektazioa eraginez.

h) Ekarpenak eta obligazioak harpidetzeko behar dena zehaztea, Batzar Orokorrak hartutako erabakiaren arabera.

i) Batzar Orokorraren erabakiak errespetaturik, erabilgarri dauden fondoan eta Erreserba-, Hezkuntza- eta Sozietatearen Promozio-fondoan inbertsio zehatza erabakitzea, aurrekontuak eratzea, gastuak baimentzea eta Kooperatibaren ahalordedunak eta ordezkariak izendatzea, kasu bakoitzean komenigarri deritzen eskumenak emanez.

j) Diru-kontuak, balantzea eta Artezkaritza Kontseiluak sozietatearen ekitaldian burututako kudeaketaren memoria-txosten argigarria aurkeztea urtero Ohiko Batzar Orokorrean, eta soberakin garbien banaketa proposatzea.

k) Batzar Orokor ohikoak eta ez-ohikoak deitzea, eta erabakiak betearaztea.

l) Epaitegietan eta Auzitegi Arruntetan eta Berezietan, Estatuaren bulegoetan, agente-organoetan, korporazioetan edota organismoetan, Autonomia Lurraldeetako, Probintziako edota Udalerriko Administrazioetan, Kooperatibari dagozkion eskubideen edo egintzen erabilerari eta ohiko eta ez-ohiko errekurtsioak jartzeari dagokionez, komenigarri deritzona erabakitzea, ordezkariak, prokuradoreak eta letratuak izendatuz, ondore horietarako Kooperatibaren ordezkarietan eta defentsan jardun dezaten, beharrezkoa den eran baieztaturik horiei zeintzuk diren dauzkaten eskumenak, adiskidetzeak, auziak, erreklamazioak, errekurtsioak edota edozein motatako jarduketak adosteko edo bertan behera uzteko, eta prozeduraren egoera dena delarik ere, eteteko eskatzeko eta beharrezkoa den guztirako, zabaltasun guztiaz epaian amore emateraino.

m) Sozietatearen fondoak eta ondasunak erabiltzea, erreklamatzeko, hartzea eta kobratzea, hala partikularrei nola bulego publikoei, Kutxa Orokorrean gordailuak eratuz edo kenduz eta, sozietatearen interesentzat komenigarria denean, bankuko diru-kontuak eratzea, diruzko ondasunak, kreditukoak edo baloreetakoak, eta bankuetako eragiketak gauzatzea entitate nazionaletan edo atzerrikoetan, bai eta

Espainiako Bankuan ere. Kooperatibak korrespontsalen esku dituenak erabili, eta kanbio-letrak igorri, endosatu, abalatu, onartu, ordaindu eta negoziatzea.

n) Gai zehatzetan edo sozietatearen negozioaren adar jakinetan agintzeko, pertsona jakinei ahalmenak ematea.

o) Estatutu hauek interpretatzean sortzen diren zalantzen gainean ebaztea eta omisioak osatzea, egiten den lehenengo Batzar Orokorrean kontu emanez.

p) Estatutu hauetan era berezian xedatutakoak.

Artezkaritza Kontseiluaren eskumenen zehaztapen honek, enuntziatu hutsa denez gero, ez ditu, inola ere mugatzen, Kooperatibaren interesak gobernatzeko, zuzentzeko eta administratzeko kontseiluak dituen eskumen zabalak, kooperatibaren beste organo batzuen berariazko eskumen ez den guztiari dagokionez.

42. ARTIKULUA. – ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN OSAERA ETA HAUTAKETA.

1.- Batzar Orokorrak lau urterako hautatutako 7 kidek osatuko dute Artezkaritza Kontseilua. Berriro hautatuak izan daitezke.

Agintaldiaren iraupena guztira lau urtekoa bada ere, Artezkaritza Kontseiluaren kideen erdiak berriztatuko dira urte birik behin. Ondore horietarako, lehenengo berriztapenean presidenteordeak, idazkariak eta kontseilukide batek utziko dute kargua. Presidenteak eta beste hiru kontseilu-kideek hurrengo berriztapenean utziko dute kargua.

2.- Presidenteak, presidenteordeak eta idazkaria hautatuko ditu Artezkaritza Kontseiluak bere kideen artean. Epea igarota, behin-behineko izaeraz iraungo dute Artezkaritza Kontseilukoek hurrengo Batzar Orokorra egin arte.

43. ARTIKULUA. – ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN JARDUERA.

1.- Presidenteak deituko du Artezkaritza Kontseilua, eta kideen erdiak baino gehiagok bertaratu beharko du bilerara era baliozkoan osa dadin. Modu pertsonalean bertaratuko dira kideak kontseiluaren batzarretara.

2.- Bertaratutakoen botoen erdia baino gehiago beharko da erabakiak hartzeko. Bertaratutakoen bi herenen aldeko botoa beharko du Artezkaritza Kontseiluak gutxienez honako erabaki hauek hartzeko:

a) Jardueraren zentro nagusi bat edo beraren atal esanguratsu bat ixteko edo lekuz aldatzeko erabakia.

b) Kooperatibaren jardueraren murrizketa, handiagotze edo aldaketa funtsezkoak.

c) Kooperatibaren antolakuntzan transzendentzia daukaten aldaketak egiteko erabakia.

d) Kooperatibarentzat lankidetzaharreman iraunkorra eta baliotsua dakarten beste entitate batzuekin, Kooperatibak izan nahi ez, loturak ezartzea edo desegitea.

Berdinketa kasuetan presidentearen botoa erabakigarria izango da.

Akten liburura eramango dira Kontseiluaren erabakiak. Bileren aktak laburki bilduko ditu eztabaidak eta erabakien testua, bai eta bozketen emaitzak ere, eta presidenteak eta idazkariak sinatuta egongo da.

44. ARTIKULUA. – EZGAITASUNA ETA DEBEKUAK.

1.- Ezingo dira administratzaile izan:

a) Birgaitu gabeko porrot eginak eta konkurtsopekoak, adin txikikoak eta ezinduak, kargu publikoetan jarduteko desgaiak berekin atxikirik daramaten zigorretara kondenatuak, Legeen edo sozietate-xedapenen ez-betetze

larrien zioz kondenaturik daudenak, eta euren karguaren zioz irabazizko jarduera ekonomikoetan jarduterik ez daukatenak.

b) Funtzionarioak eta Administrazioaren zerbitzura dauden langileak, beraien kargupeko eginkizunek Kooperatibak bere dituen jardueretik zerikusia daukatenean.

c) Euren edo inoren kontura Kooperatibaren jardueretik lehian dauden jarduerak burutu edo betetzen dituztenak edo, edozein eratan, kooperatibaren interesen aurkako interesak dituztenak.

d) Zaintza Batzordearen kideak eta zuzendari-kudeatzaileak.

e) Estatutuetan aurreikusita dauden balizkoetan erortzen direnak.

2.- Artikulu honetako ez-gaitasunetako edo debekuetako edozeinetan erortzen den administratzaileak berehala aurkeztu beharko du dimisioa. Halatan ere, aldi batez eten diezaioke kargua Zaintza Batzordeak, Artezkaritza Kontseiluak halakorik egin ez baldin bada, hurrengo Batzar Orokorrera arte. Batzar Orokorrak, kautelazko etetea gauzatu bada, edo edozein bazkidek eskatuta, administratzailea kargutik kenduko du, c) atalean aurreikusita dagoen kasuan izan ezik. Horrelakoetan Batzar Orokorrak aske erabakiko du kargutik kentzea ala bertan jarraitzea.

45. ARTIKULUA. – ADMINISTRATZAILEEN ORDAINSARIA.

Artezkari Kontseiluko kideek ez dute ordainsaririk jasoko. Hala ere, karguak eragiten dizkien gastuen ordaina emango zaie.

46. ARTIKULUA. – ADMINISTRATZAILEEN ERANTZUKIZUNA.

1.- Enpresari txukunaren eta ordezkari leialaren arduraz jardungo dute administrariak euren karguan. Legearen edo

Estatutuen aurkako egintzen zioz, edo behar adinako ardurarik gabe burututakoen zioz eragiten dituzten kalteen erantzule izango dira. Isilpeko datuak sekretuan mantenduko dituzte, euren eginkizuna amaitu ondoren ere.

2.- Egintza edo erabaki kaltegarria burutu edo hartu duen organoa osatzen duten kide guztiek era solidarioan erantzungo dute, erabakia hartzeko edo egintza burutzeko tenorean eskurik hartu ez eta horren berririk ez zutela frogatzen dutenak, edo, ezagututa ere, kaltea ekiditeko ahalegin guztiak egin zituztenak edo, behinik behin, euren kontrako jarrera berariaz adierazi zutenak izan ezik.

3.- Egintza edo erabaki kaltegarria Batzar Orokorrak hartua, baimendua edo berretsia izanak ez du erantzukizunetik libratuko.

4.- Administratzaileek sekretupean mantenduko dituzte isilpeko datuak, euren eginkizuna amaitu ondoren ere.

47. ARTIKULUA. – ADMINISTRATZAILEEN AURKAKO ERANTZUKIZUN EKINTZAK.

1.- Batzar Orokorrak, gehiengo arruntaz, gai-zerrendan jasota egon ez arren hala erabaki ondoren, administratzaileen aurkako erantzukizuneko sozietatearen ekintza erabili ahalko du Kooperatibak.. Batzar Orokorrak uneoro ahalko du amore eman edo ekintza erabiltzeari uko egin

2.- Batzar Orokorrak ekintza sustatzeko edo amore emateko erabakiak berekin dakar, automatikoki, eragindako administratzaileak kargutik kentzea.

3.- Erabakia hartzen den egunean zenbatzen hasi eta hiru hilabeteko epearen barruan Kooperatibak erantzukizuneko ekintzari ekiten ez badio, edozein bazkidek erabili ahalko du.

4.- Kaltea egiten denetik zenbatzen hasita, Batzarrak edo bazkideek ekintzari ekin gabe sei hilabeteko epea igarotzen denean, sozietatearen edozein hartzekodunek ekin ahalko dio

erantzukizuneko ekintzari, Kooperatibaren ondarea berriro eratzeko ez beste ondoretarako.

5.- Nolanahi ere den, erantzukizuna sorrarazi duten egintzak gertatuaz edo ezagunak izateaz geroztik bi urteko epea igarotakoan preskribatu egingo da ekintza.

6.- Aurreko zenbakietan xedatutakoa gorabehera, salbuetsita geratzen dira bazkideei eta hirugarrenei, administratzaileek euren interesak zuzenean kalteturik eragindako egintzen zioz egoki dakizkiekeen banakako ekintzak.

48. ARTIKULUA. – ADMINISTRATZAILEEN ERABAKIAK AURKARATZEA.

1.- Artekarrizta Kontseiluaren edo, hala denean, Batzorde Betearazlearen erabakiak aurkaratu ahalko dira, baldin eta Legearen edo Estatutuen aurka badoaz edo, bazkide baten edo batzuen edo hirugarrenen onurarako, Kooperatibaren interesak kaltetzen badituzte.

2.- Administratzaileek eta Zaintza Batzordeak erabaki baliogabeak eta deuseztagarriak aurkaratu ahalko dituzte, erabakiok hartzen direnean zenbatzen hasi eta hirurogei eguneko epean.

3.- Erabaki baliogabeak edozein bazkidek ere aurkaratu ahalko ditu eta erabaki deuseztagarriak, berriz, sozietatearen botoen % 10 ordezkatzan duten bazkideek, erabakiaren berri daukatenetik zenbatzen hasi eta hirurogei eguneko epean, baldin eta erabakia hartu denetik urtebete igaro ez bada.

4.- Aurreikusita dauden ondoreak izango ditu aurkaratzeak, eta Batzar Orokorraren erabakiak aurkaratzeari dagokionez ezarrita dagoenaren arabera izapidetuko dira.

3. ATALA

ZAINTZA BATZORDEA.

49. ARTIKULUA. – OSAERA, AGINTALDIA ETA IZENDAPENA.

Batzar Orokorrak izendatuko ditu, bazkideen artean, eta bozketa sekretuaren bidez, Zaintza Batzordea osatuko duten kideak. Hiru bazkidek eta hiru ordezkok osatuko dute batzorde hori, eta administratzaileen agintaldiarekin bat etorriko ez den lau urteko aldian jardungo dute.

50. ARTIKULUA. – ESKUMENAK ETA FUNTZIONAMENDUA.

1.- Honako eginkizunak burutzeko eskumena dauka Zaintza Batzordeak:

a) Urteko diru-kontuak aztertu eta diru-kontuoi eta soberakinen banaketarako edo galeren egozketarako proposamenari buruzko manuzko txostena egitea Batzar Orokorrera aurkeztu aurretik, Kooperatiba finantza-egoerak diru-kontuen auditoria baten mende jartzera derrigortuta dagoenean izan ezik.

b) Kooperatibaren liburuak ikuskatzea.

c) Batzar Orokorrerako deialdia egitea Kooperatibaren interesetarako beharrezkoa irizten dionean, baldin eta administratzaileek, Estatutuen 34. artikuluko 2 eta 3 zenbakietan xedatuta dagoenaren arabera bazkideek zuzendu dieten eskariari jaramonik egin ez badiote.

d) Ordezkapen-idatzien egokitasuna gainbegiratzea eta kalifikatzea eta, oro har, Batzarretara sartzeko eskubidea dela eta sortzen diren zalantzen edo gorabeheren gaineko ebazpena ematea.

e) Sozietatearen erabakiak aurkaratzea Legean eta Estatutuetan aurreikusita dauden kasuetan.

f) Batzar Orokorra informatzea bertatik helarazten zaizkion egoera edo kontu zehatzez.

g) Batzar Orokorrak gainerako organoen kideak hautatzeko eta izendatzeko darabilen prozesua zaintzea.

h) Estatutuen 43. artikuluan ageri diren ez-gaitasunerako edo debekurako zioetakoren batean erortzen diren administratzaileak etenaldian ezarri eta, beharrezkoa denean, ezinbestekoak diren neurriak hartzea Batzar Orokorra egin bitartean.

i) Legeak berariaz bere esku jartzen dituen gainerako eginkizunak.

2.- Estatutuetan edo, bestela, Barne Araudian aurreikusita dagoenari egokituko zaio Zaintza Batzordearen funtzionamendu-araubidea. Halatan ere, edozein administratzailek edo batzordekidek eska diezaioke idatziz organo honen presidenteari biltzeko deia egin dezala, eskariaren zergatiak adierazirik. Eskaria Artezkaritza Batzordeko edo Batzorde honen kideen herenak gutxienez egindakoa izan eta hilabeteko epean deialdirik egiten ez bada, eskatzaile-taldeetako edozeinek egin ahalko du deialdia.

3.- Artikulu honetan adierazitako eginkizunak direnak direla ere, likidazio-aldian, horrelako epealdietan bidezko gertatzen diren eginkizunak baino ez ditu beteko Zaintza Batzordeak.

V. KAPITULUA

SOZietateAREN DOKUMENTAZIOA.

51. ARTIKULUA. – SOZietateAREN DOKUMENTAZIOA.

1.- Honako liburuak edukiko dituzte Kooperatibek, ordenaturik eta eguneraturik:

a) a) Bazkideen erregistroa.

b) b) Sozietatearen Kapitalari egindako ekarpenen erregistroa.

- c) c) Batzar Orokorraren, Artezkaritza Kontseiluaren eta Zaintza Batzordearen Akta Liburuak.
- d) d) Inbentarioen eta balantzeen liburua eta eguneroko liburua.
- e) e) Bestelako legezko xedapenek exijitzen dituzten beste guztiak.
- f)

2.- Kontabilitatearen gainerako liburuak eta erregistroak koadernaturik eta orriraturik egongo dira, eta erabili baino lehen Kooperatiben Erregistroan gaituak beharko dute izan.

3.- Prozedura informatikoen edo beste prozedura egoki batzuen bidez gauzatzen diren idazpenak eta idatzi-oharrak ere baliozkoak izango dira, eta ordenan koadernatuak izango dira, nahitaezkoak diren liburuak eratzeko. Ekitaldia ixten den egunean zenbatzen hasi eta sei hilabeteko epean legeztatuko ditu Kooperatiben Erregistroak.

VI. KAPITULUA DESEGITEA.

52. ARTIKULUA. – DESEGITEKO ZIOAK.

Honako hauek izango dira Kooperatiba desegiteko zioak:

- 1.- Sozietatearen xedea amaitzea edo xedea gauzatzeko ezintasun nabarmena izatea.
- 2.- Sozietatearen organoak geldiaraztea edo aktibitaterik gabe irautea, edo Kooperatibaren jarduera ziorik gabe etetea, bi kasuetan ere elkarren segidako bi urtez.
- 3.- Bazkide kopurua Kooperatiba eratzeko legez beharrezkoa den gutxienekoa baino txikiagoa izatea, hamabi hilabetez baino luzaroago horrela iraunez gero.

4.- Sozietatearen Kapitala, Estatutuetan Sozietatearen Kapitalerako ezarrita dagoen gutxieneko kopurua baino kopuru txikiago batera murriztea, hamabi hilabeteko epean berrezarri ezean.

5.- Fusioa edo erabateko zatiketa.

6.- Kooperatibak porrot eginez gero, desegitea ekarriko du porrota adierazten duen epai-ebazpenaren ondorioz berariaz hala erabakitzen denean.

7- Batzar Orokorraren erabakia, Estatutuen 37. artikulua 2 zenbakian aurreikusita dagoen gehiengoaz hartzen denean.

8.- Legeetan edo Sozietatearen Estatutuetan ezarrita dauden gainerako zio guztiak.

VIII. KAPITULUA KOOPERATIBA ARBITRAJEA.

53. ARTIKULUA. – SOZIETATEAREN GATAZKAK.

Kooperatiba-alorreko harremanetan, Kooperatibaren eta bazkideen artean, edo kooperatibaren bazkideen artean gertatzen diren auziak, likidazio-aldian bada ere, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorenaren arbitrajearen pean ezarriko dira, adiskidetze-bideak agortutakoan, baldin eta organo horrek horrelako gaien gaineko ebazpena hartzeko eskumena badauka, eta alderdiek arbitraje horrek eratortzen duen laudoari men egingo diotelako berariazko konpromisoa hartuko dute.